



NANOKAPSULA

Zer egiten du

Nanokapsulak urdailaren, eta koloneko eta hesteko pareten irudi argiak har ditzake.


Gaur egun urdail-hesteak behatzeko, endoskopia bat egin behar izaten zaio gaixoari, hau da, zuntz optikoko kableak sartu behar izaten zaizkio uzkitik, eta prozesu hori nahiko deserosoa da. Hemendik aurrera, ordea, kapsula berri honi esker, gaixoak ez du sufritu behar izango.

Asmakuntza 11x30 milimetro da (aspirina baten tamaina), eta urdailean, kolonean eta hesteetan zehar bidaiatzen du, irudiak hartzeko.

Hau da, kamara batek halako tamaina izan dezan, bere osagaiak nanometroen eskalakoak behar dute. Hortan datza nanokapsula izenaren arrazoia, hain zuzen ere.

Gaixoa ohartu ere ez da egiten. Kapsula 10 gaixorekin probatu dute, eta momentuz emaitza onak eman ditu.

Kapsulak hartutako irudiak azalean itsasten den errezeptore batek jaso eta grabatzen ditu.



Errezeptore horrek jasotako seinaleen potentziak adierazten du kapsula une oro non dagoen.

24 ordura, kapsula gorozkiekin batera kanporatzen da.

Zer arlotan erabil daiteke

Emaitza hauek gaixo gehiagorekin errepikatzen badira eta teknika berri hau ohiko praktika bihurtzen bada, diagnostikoa egiteko metodo honek orain arteko endoskopia-metodoak ordezkatu ditu.

Gainera, kapsula honen bitartez, zuntz optiko bidez egiten den endoskopia iristen ez den lekuetara iristeko aukera daukagu. Ikertzaileen ustez, sistema honek kolona eta heste meharra miatzen lagun dezake.

Ikerketa-taldea

Paul Swain irakaslea (Royal London Hospital, Britainia Handia) eta lankideak (Given Imaging Inc. Israel).